1953 2013 cineclubfas 60 urte años

**PRENTSA OHARRA**

Bilboko faszineklub–ak, Bilboko Udalaren Kultura eta Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, aurkezten du:

Emanaldi berezia Zinema kalean Olabeagan

Chico & Rita

Fernando Trueba, pelikularen zuzendaria, aurkeztuko du emanaldia

2013ko ekainaren 14an, ostirala · 22:00 o. · Olabeagako Zentro Zibikoan

(San Nicolás de Olabeaga, 33)

Emanaldia dohainik

**CHICO & RITA V.O.**

**22.00 h. · 14.06.2013 · 2143 EMANALDIA**



**CHICO & RITA** · Espainia / Britainia Handia · 2010 · 94 min · **Zuz** Fernando Trueba / Javier Mariscal / Tono Herrando · **G** Fernando Trueba y / eta Ignacio Martínez de Pisón · **Mnt** Arnau Quiles · **M** Bebo Valdés · **Prd** Isle of Man Film / CinemaNX / Fernando Trueba Producciones Cinematográficas S.A. / Magic Light Pictures · **Akt** Animazioa

**Animaziozko Pelikularik Onenari 2010 Goya Saria**

Berrogeigarren urteen amaierako Kuban, maitasun historia kartsua hasiko dute Chicok eta Ritak. Jazzarekin maitemindurik dagoen piano-jotzaile gaztea da Chico eta Ritak, berriz, abeslari handia izan nahi du. Habanako klub batean dantzaldi batean halabeharrak elkartu zituen gau hartatik, elkartzen eta elkarrengandik urruntzen ditu bi-zitzak, bolero bateko pertsonaiak bezala.

Fernando Trueba da zuzendaria eta Javier Mariscal eta Tono Herrando (Mariscalen anaia txikia) dira zuzendariki-deak. Zera dio Truebak: "*Niretzat, abestia da Chico & Rita, abesti erromantikoa, boleroa. Abeslari baten eta piano-jo-tzaile baten historia da, Kuban, berrogeigarren urteen amaie-ran, eta bizitzak nola elkartzen eta nola elkarrengandik urruntzen dituen kontatzen du abesti batean bezala. Musika, maitasun, sentsualitate eta kolorez betetako filma da*".

**FERNANDO TRUEBA**

**22.00 h. · 14.06.2013 · 2143 EMANALDIA**



**OINARRIZKO FILMEGINTZA** · Opera prima (1980) · Sé infiel y no mires con quién (1985) · El año de las luces (1986) · El sueño del mono loco (1989) · Belle Époque (1992) · Two much (1995) · La niña de tus ojos (1998) · Calle 54 (2000) · El milagro de Candeal (2004) · Chico y Rita (2010) · El artista y la modelo (2012)

Oscar bat (*Belle Epoque*, 1993), Urrezko Hartz bat (*El año de las luces*, 1986) eta zenbait Goya irabazi ditu. Bere filmen artean daude, *Opera prima* (1980), *Mientras el cuerpo aguante* (1982), *Sal gorda* (1983), *Sé infiel y no mires con quién* (1985), *El sueño del mono loco* (1989), *Two Much* (1995), *La niña de tus ojos* (1998), *Calle 54* (2000), *El embrujo de Shanghai* (2002), *El milagro de Candeal* (2004), *El baile de la Victoria* (2009), *Chico & Rita* (2010) eta El artista y la modelo (2012). Berak sortu zuen *Casablanca* zinema-aldizkaria, *Diccionario de Cine* hiztegiaren egile da eta *Diccionario del Jazz Latino* hiztegiaren editore. Musika-ekoizle gisa zortzi Grammy irabazi ditu.

***Emanaldi berezia Olabeagako Zentro Zibikoan***

***Gonb.: Fernando Trueba, zuzendaria***

**Informazio gehiago:**

Tel.: 944 425 344 · Fax: 944 205 198 · info@cineclubfas.com · www.cineclubfas.com · Twitter: @cineclubfas · Facebook: Cineclub Fas